



Antsotegi etxea eta ola (Etxebarria)

Antsotegiko ola eta errota multzoa Lea-Artibairen arroa osoan jarduera honetaz ondoen artatutako barrendegia da. Artibairen Urko ibaiadarraren ezker aldean, Etxebarria udal mugartearen barruan dago, Markina hiribildutik gertu baina. Barrendegian jabeen bizitoki izan zen jauregia, olaren eraikina (egun landa hotela), azpiegitura hidraulikoaren zati bat, horri lotutako errota bat eta ibaiaren gainetik igarotzeko eta Etxebarritik Markinarako oraingo errepidearekin lotzeko zubi xume bat daude.

Historia

Antsotegiko ola jarduera XV. mendearen hasieratik dokumentatzen da, Zenarruzako Kolegiatari egindako dokimantazio batean. 1635era arte ez da bigarren aipurik inon ageri, eta ordukoa ondoko etxean bizi den Domingo Antsotegirena zen errotari buruzkoa zen. Olak lanean zirauen artean, zeren, mende horretan zehar, Etxebarri-Xemeingo kontzeju mendien banaketan sartu baitzen, ikatzak lortzeko. Kanpoan zegoen ugazaba klasikoaren eredutik urrun, Antsotegitarrek zuzenean administratu zuten beren ola XVIII. mendean zehar, eta beren oharretan hauspo konponketak, ingudeak, ikatz erosketak, lanketa emaitzak, eta abar hizpide diren gutunak daude. Aurreko garaietako zantzurik dagoen arren, oraingo multzoak, bai proportzioetan bai azpiegitura hidraulikoan, ola modernoaren erudukoa dela garbi erakusten du. Izan ere, 1729an, Andres Ignacio Antsotegi Etxebarriko Elizateari «Etxebarrin, Antsotegiko etxean egin nahi duen ola obra berrirako» egurra eskatu zion, eta datu hori bat dator barruko arkuetakoa erdiko dobelan dagoen datarekin: 1730.

Jauregia

Etxea, jendeak Antsotegiko Dorre modura ezagutzen duena, fatxada nagusian, zubira begira dagoenean, leinuaren armak ikusgai dituen jauregia da. Ziurrenik erdi aroko egoitza baten ordezkaria da, baina egungo eraikina XVII. mendearen lehenengo erdikoa dela esan behar da, *barroko zorrotza* deritzuten estilokoa. Tentsio bertikal nabarmena dauka -erdi aroko dorre iturriak ekartzen ditu gogora-, baina egoitza izateko asmo sendoa: defentsa elementuak baztertu eta hormataletan simetrikoki antolatutako barrunbe zabalak hedatzera jotzen du (baoak eta sarbideak). Harlangaitzez eraiki zen, izkina eta baoetan karezko harlanduz sendotuta, eta lau isuriko teilatu piramidalez errematatuta.

Ola

Olak eta errotak azpiegitura hidraulikoa partekatu zuten. Tramankulutik 200 metrora besterik ez zegoen eta Villarreal de Bérizzen diseinuetan oinarritutako arku-grabitatego uharkatik hartzen zituen. Kanala ibaiaren ezker aldeko magalean indusitako eta eskuinaldean ondo sendotutako bidetik zihoan; duela zenbait urte lurrez zeharo estali zen. Trapezoide formako oinplanoko erregulazioko urtegi batean amaitzen zen (egun hormigoiz estalitako espazioa dago), alderik luzeena ate-aitzinerara eta errotaren atzealdeko paretara itsatsita zituelarik. Izan ere, urtegi hori eta ate-aitzina eta tunel hidraulikoa berregokitzeko obra batzuetan eraitsi zituzten. Ate-aitzina, 3 bat metrotakoa, harrizko erlaitzetan sostengatutako karezko harlauza sendoen gainean eskegitako baltsa zen. Olari itsatsitako alboak tunel egitura tipikoa dauka, tailerrarekin hiru komunikazio baoduna: bata, ateburuaira, tunelera sartzeko, eta bi arku hauspoari eta porrari eragiteko ardatz bana jartzeko. Hauspoen ardatzaren bestaldean errota jarri zen, zegokion arkuarte irteerako ubiderako eta hustubiderako aprobetxatuz, aurreko hustubidea zuen arren.

Barruan, olak jatorrizko banaketa ia berdina du. Tailerra, luzanga eta laukizuzena, egun hoteleko harrera gunea eta jantokia da; tunelera sartzeko arkuak erdi-lurperatuta geratu dira. Obretan zehar, oraingo igogailuaren azpian, olako ingudearen oinarria aurkitu zen. Egoitza horren zeharkako norabidean ikaztegiak daude, beren banaketa paretekin: bata, luzanga eta nabarmen estua, sakonean dago, lurraz kontra: hurrengo biak paraleloki ageri dira, zeinetan handiena egun areto nagusia den, tailerretik sarrera bikoitzaz, eta teilatuari eusten dion eskuineko oina babesteko harlangaitzeko zutabe sendoa; bigarrenean egun bulegoa, sukaldea eta hoteleko taberna daude. Sartzeko bi bao ere izan zituen, bata zuzena eta bestea egoitza txiki baten zerbitzurako, gaineko solairu bat izan zuena, antza, eta olagizonak lo egiten zuteneko toki edo ganbaratxoa izango zena.

Kanpoan interesgarriak dira ikaztegiaren biltegi eta zama lanetarako egiturak, sarrerako bideko fatxadak, egurrezko pasabideei eusten zieten zapatekin, dendelen gainean hedatuta, bi bao mailataratu heldu eta ikatza isuri eta pilatzeko lanak errazteko. Egundak, birmoldaketaren obrak lehenengo maila hori gogoratzen du, gela nagusietan egurrezko terrazak erantsita.

Errota

Barrendegiak oraindik errota txikia dauka, tunel hidrauliko hondatuaren bestaldean; ehotzeko jarduerara erabat xedatutako espazio xumea da, XIX. mendean ola itxi eta gerora ere aktibo iraun zuena XX. mendeko berrogeita hamar edo hirurogeigarren hamarkadara arte. Harlangaitzez eraikitako oinplano laukizuzeneko eta bi isuriko teilatuko etxetxo batean, solairu bakarrean, gordetzen da antzinako ehotzeko eserlekua Bi errotarri parek, toberak, garabi besoak, garbigailuak eta poleez eragindako galbaheak osatzen duten zuzkidura mekanikoa.

Testua: María José Torrecilla.



Antsotegi etxea eta ola

Etxebarria. (*Antsotegi auzunea*).

Nola heldu:

Markinatik Etxebarrira doan errepidetik, eta udal mugartearen sartu eta berehala, eskuinetara ibairantz jaisten den desbideraketa hartuko dugu.

Bisiten ordutegia:

Egun landa hotel modura egokituta dago.

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Etxebarria*)

- Iburguen garaia.
- San Andres eliza.
- Munibe jauregia.

(*Markina-Xemein*)

- Barinagako Santa Marinako basiliza.
- Andre Mariren eliza.
- Barroeta dorrea.
- "La Esperanza" fabrika.